

BEZEROEN SEGMENTAZIOA

Gure enpresak bi bezero segmenturi sortzen die balioa, alde batetik gizartean dauden pertsonari (15 urtetik gorako pertsonak), hauek app-a eta edukiontziontziak erabiliko dituztenak izango dira. Beste alde batetik, erakunde publikoak eta udalek gure produktua erosiko dutenak izango dira, gure produktuagatik ordainduko dutenak, bezero zuzenak. Beraz, gure enpresa masen merkatuari zuzentzen da, antzeko beharrak eta nahiak (birziklatzea) dituzten kontsumitzaile taldeari zuzentzen garelako.

Gaur egun birziklatzeko kontzientzia handia dagoenez gure produktua kontsumitzen duten bezero kantitatea handia izango da, beraz gure enpresa durangaldeko herri guztietatik zabaldua egongo da. Hurrengo grafikoan durangaldeko herri bakoitzean egongo diren edukiontzi kantitatea agertzen da, zifra hauek herri bakoitzeko udalarekin adostu ditugu.

Gure lehiakide nagusiak edukiontzi konbentzionalak saldu eta kudeatzen dituzten enpresak dira, hauek etxe guztietatik hurbil dauden arren, bezeroek uraren fakturarekin batera tasa batzuk ordaindu behar dituzte eta ez dute ezer lortzen ordainetan. Beraz, gure enpresak eskaintzen duen balioa osatuagoa da.

